

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO  
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA  
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA  
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

## Nafarroako Lehendakari Uxue Barkosek bidaia instituzionala egingo du Argentinara abenduaren 4tik 10era bitartean

*Izaera ekonomiko eta instituzionala ere izango duen bidaia ofizial horretan, Barkos harremanetan jarriko da herrialde horretan dagoen nafar diasporarekin*

Ostirala, 2018.eko azaroak 9

Nafarroako Lehendakari Uxue Barkos buru duen Nafarroako Gobernuaren ordezkariak batek Argentina bisitatuko du abenduaren 4tik 10era bitartean. Hauxe da nafar diasporarekin harremanetan jartzeko aukera eskainiko duen Lehendakariaren lehendabiziko bidaia ofiziala.

Halaber, bidaiak izaera ekonomiko eta instituzionala izanen du, izan ere, bisitaldiaz baliatuta, Lehendakariak Foru Komunitatearen errealitatea eragile ekonomiko eta enpresarialen aurrean aurkezteko aukera izanen du. Protagonismo berezia izanen du Nafarroa aitzindari duen energia berriztagarrien sektoreak. Esparru honetan, gora egin du Argentinarekiko jarduera komertziala, zenbait nafar enpresak dagoeneko bertan lan egiten dutelarik.

Lehendakaria buru duen ordezkariak hainbat harrera eta topaketa instituzionaletan parte hartuko du Buenos Airesen zein Rosarion. Azken hiri honetan, Barkosek nafar kolektibitateen topaketan parte hartuko du hilaren 7tik 9ra.

Bidaia ofizialean, Lehendakariarekin batera joango dira Herritarrekiko eta Erakundeekiko kontseilari Ana Ollo eta Politika Ekonomiko eta Enpresarialeko eta Laneko zuzendari nagusi Izaskun Goñi.